

Internet duten enpresen %63,8k izapideak egiten dituzte Administrazio Publikoarekin modu elektronikoan


Euskal enpresek Internet bidez batez ere aldundiekin jarduten dute, eta ondoren Administrazio Zentralarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin

Internet erabiltzen duten euskal enpresen %63,8k bide hau erabiltzen du noizbait administrazio publikoarekiko izapide edo zerbitzuetaarako 2013an, Eustaten datuen arabera. Ehuneko hori %91,3 da 10 langile edo gehiagoko enpresetan.

Euskal enpresen %78,8k Internet darabil, beraz administrazioarekikoetan modu elektronikoan aritzen direnak %50,3 lirateke. 10 langile edo gehiagokoetan, %97,1ek Internet dutenez gero, portzentajea %88,7 da.

Administrazioarekiko erlazio elektronikoak dauzkaten enpresen kopurua haziz joan da azken urteetan. 2001etik 2013ra Internet eduki eta haren bidez izapideak egiten dituzten enpresak %22,5etik %63,8ra hazi dira. 10 langile edo gehiagokoak aintzat hartuz, portzentajeak handiagoak dira: 2001ean %43,9; 2013an %91,3.

1 grafikoa: Internet eduki eta haren bidez administrazio publikoarekin izapideak egiten dituzten enpresen bilakaera. 2001-2013 (%)



Iturria: EUSTAT. Informazio gizartearen inkesta (IGI). Administrazioa

Euskal enpresek administrazioarekin eginiko izapide elektronikoak: informazioa lortu, Internet dutenen %55,6; inprimakiak lortu, %51,7; BEZ (Balio Erantsiaren Zerga) adierazi (%43,7); inprimakiak bete eta bidali, %43,0; sozietate-zerga adierazi %38,9. 10 langile edo gehiagokoak aintzat hartuz, portzentajeak handiagoak dira.


1. taula: Internet baduten establezimenduak, administrazio publikoekiko izapidetze elektroniko motaren arabera. 2013 (%)

	Sektore publikoa		Administrazio zentrala		Eusko Jaurlaritza		Foru-aldundiak		Toki-erakundeak		Europar Batasuna eta beste	
	Guztira	10 eta gehiago	Guztira	10 eta gehiago	Guztira	10 eta gehiago	Guztira	10 eta gehiago	Guztira	10 eta gehiago	Guztira	10 eta gehiago
Administrazioarekin izapide elektronikoak egiten ditu	63,8	91,3	45,6	73,6	42,3	70,5	55,1	80,1	27,4	41,3	6,5	18,4
Informazioa lortu	55,6	83,1	22,0	48,3	39,3	66,4	45,1	68,2	25,4	39,3	5,6	16,7
Inprimakiak lortu	51,7	80,4	17,1	40,8	33,1	60,1	42	66,3	19,8	29,6	3,1	10,3
Inprimakiak itzuli	43	73,5	13,8	35,2	25,3	51,3	34,5	58,5	12,7	20,8	2,3	8,2
Prozedurak modu elektronikoan izapidetzea	28,5	59	10,3	27,4	14,9	38	20,9	42,6	6,3	12,7	1,9	5,6
Lizitazio elektronikoko sistema batean proposamenak aurkeztu (e-procurement)	7,1	14,3	2,3	7,5	3,6	9,4	4,4	8,3	2,1	3,1	0,6	1,7
Enplegatuen gizarte-kotizazioak adierazi	34,4	59,7	34,0	59,3	.	.	.	.	.	.	0,5	0,6
Sozietateen zerga adierazi	38,9	61,4	8,8	15,9	.	.	33,2	53,5	.	.	0,1	0,2
Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) adierazi	43,7	63,9	9,2	15,1	.	.	37,6	55,3	.	.	0,1	0,5
Zerga bereziak edo aduana-eskubideak adierazi	5,8	18,6	5,7	17,8	.	.	0,1	0,7	.	.	0,1	0,6
Beste zapide edo zerbitzu batzuk	2,3	3	0,8	1,1	0,5	0,9	1,5	1,7	0,2	0,3	0	0,1

Iturria: EUSTAT. Informazio gizartearen inkesta (IGI). Administrazioa

Internet baduten enpresek batez ere Foru-aldundiekin (%55,1) eta Administrazio Zentralarekin (%45,6) egiten dituzte izapideak; portzentajeetan eragina dute zerga nagusien gainean dituzten eskumenek. Ondoren Eusko Jaurlaritza (%42,3), Tokiko Entitateak (%27,4) eta Europako Batasuna eta beste (%6,5).

Berriz ere portzentaje hauek handiagoak dira 10 langile edo gehiagokoak bakarrik aintzat harturik: Foru-aldundiak (%80,1); Administrazio Zentrala (%73,6); Eusko Jaurlaritza (%70,5); Tokiko Erakundeak (%41,3); Europar Batasuna edo besteren bat (%18,4).

2 grafikoa: Internet eduki eta haren bidez administrazio publikoekin izapideak egiten dituzten euskal enpresak. 2013 (%)


Fuente: EUSTAT. Encuesta sobre la Sociedad de la Información (ESI). Administración

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

 Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Informazioaren gizarteari buruzko inkesta (IGI) Administrazioa; prentsa ohar gehiago